

[Iruñeko Alde Zaharra] Herri batzarra - Asamblea popular

MARAVILLAS GAZTETXEA :: 31/07/2018

[Euskara]

Azken egun hauetan Nafarroako Gobernuak Geroa Bai honen buru delarik jada Gaztetxearen aurka ia urte batez irekita zegoen prozedura judizialean akusazio partikular bezala azaldu da. Honekin batera, epaileari espazioaren desalojo prebentiboa eskatu dio, argi eta garbi utziz zein den bere jarrera eta asmoa Gaztetxearekiko. Egia esan, honek ez gaitu harritzen.

Izan ere, Geroa Bai-k denbora darama erakusten defendatzen duen eredu soziala ez dela ezertan ezberdintzen lehengo Erregimenarekin alderatuz.

Ez, ez gaitu harritzen, ongi baitakigu Geroa Bai PNV-k Nafarroan erabiltzen duen marka zuria dela. Ongi dakigu ere PNV-k inoiz ez duela langile klasearen ongizatea bermatzen duen aldaketa erreal eta sakon bat defendatuko. Alderantziz, PNV-Geroa Bai-k bere interes propioak eta haien elitekoak defendatzen dituzten alderdiak dira. Adibideak soberan ditugu: AHT, Aroztegia, desalojoak, politika sozial urriak, euskararekiko gutxiespena, ...

Benetako aldaketa kalean emango dela argi dugu. Kapitalismoak jendartean ezartzen duen miseria eta zapalkuntzaren aurka egunero borrokatzen duten kolektibo eta pertsonengandik. Hau guztiagatik, eraso berri hau Maravillas Gaztetxeari zuzendu arren, azken urte hauetan gauzak aldatzeko borrokan ibili diren horientzako ere eraso da. Eta guztion aurkako eraso dela kontuan hartuz, erantzuna kolektiboa izan behar du.

Horregatik, bizilagun, lagun, militante, dei egiten dizuegu ostiral honetan 19:30ean Gaztetxean bertan egingo den Herri Batzarrean parte hartzera. Bertan egoera zein den azalduko dugu, eta nola, guztion artean, gune autogestionatua defenda dezakegun. Maravillas Herriarentzat!

[Castellano]

Estos últimos días hemos tenido conocimiento de que el Gobierno de Navarra encabezado por Geroa Bai se ha personado como acusación particular en el procedimiento judicial abierto contra el Gaztetxe hará casi un año. Además, ha hecho un requerimiento al juez para que se proceda al desalojo cautelar del espacio, dejando claro cual es su postura e intención para con el Gaztetxe. A decir verdad, no nos sorprende.

No nos sorprende, puesto que Geroa Bai lleva tiempo demostrando que el modelo social que defiende en nada se diferencia del anterior Régimen.

No nos sorprende, ya que Geroa Bai no deja de ser la marca blanca que utiliza el PNV en Nafarroa. Y sabemos, de buena tinta, que el PNV jamás defenderá un cambio real y profundo que repercuta en el bienestar de la clase trabajadora. Al contrario. PNV-Geroa Bai no son solo sino partidos que defienden sus propios intereses y los de la élite a la que representan. Ejemplos nos sobran: TAV, Aroztegia, desalojos, escasas políticas sociales, ninguneo del euskera, ...

No nos cansaremos de decir que el verdadero cambio es aquel que surge de la propia calle. De las personas y colectivos que día a día luchan para hacer frente a la miseria y opresión que el capitalismo genera sobre la sociedad. Y es por eso, que este nuevo ataque a Maravillas Gaztetxea, es un ataque a todas aquellas personas y agentes que han peleado durante los últimos años para cambiar las cosas. Y puesto que se trata de un ataque contra todxs, la respuesta, debe ser colectiva.

Por ello, vecinx, amigx, militante, te hacemos un llamamiento a participar en la Herri Batzarra que hemos convocado para este viernes a las 19:30 en el Gaztetxe mismo, donde explicaremos cual es la situación y de que modo podemos, entre todxs, defender el espacio autogestionado.

Maravillas Herriarentzat!

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/iruneko-alde-zaharra-herri-batzarra